
SAREEN SAREAREN ESPARRU ETIKOA

2023KO UZTAILAREN 19



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Iparragirre, 9
48009 Bilbao
Tel. 946 569 230
info@sareensarea.eu
www.sareensarea.eus



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Sareen Sarea Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeen sareak biltzen dituen elkarte da.

Sareen elkarte hori borondatezko izaerarekin eta irabazi-asmorik gabe bildu diren elkarteek osatzen duten esparrua da. Herritarren ekimen libretik sortu dira eta modu autonomo eta solidarioan funtzionatzen dute honako helburu hauek lortu ahal izateko interes orokorreko ekintzak bideratuta: gizarte-eskubideak aitortzea eta erabiltzea, dimentsio guztietan kohesioa eta gizarteratzea lortzea eta gizarte-kolektibo jakin batzuk ongizateko behar adinako maila batzuetatik kanpo geratzea ekiditea.

Erantzunkidetasun-, zeharkakotasun-, subsidiarioritasun- eta jasangarritasun-printzipioak erreferentzia gisa hartuta, parte hartzeko eta sarea indartzeko konpromisoa hartzen dute SAREEN SAREAREN baitako erakundeek eta/edo sareek, halako moldez non SAREEN SAREA osatzen duten antolakuntza mailen arteko interrelazioa simetrikoa eta osagarria izango den.

MISIOA

Sareen Sareak Hirugarren Gizarte-sektore elkartu, indartsu eta onartu baten alde lan egiten du; eragile sozial zein instituzionalekin elkarriketarako gaitasuna duen sektorea izatea baitu helburu.

BALIOAK

Gure misioaren oinarria balio hauek dira: elkartasuna, eraldaketa, elkarlana eta gardentasuna. Baina baita aniztasunaren eta independentziaren konpromiso eta defentsa irmoa ere eta barne-demokrazia ordezkagarria, parte-hartzea eta autonomia eta errespetua garatzearen aldeko apustua ere.

ERREFERENTZIAZKO PRINTZPIOAK

Esparru etiko komun baten inguruan egituratutako sareen sare gisa aitor dezaten nahi du SAREEN SAREAK. Bost printzipioren bidez definitzen da esparru etiko komun hori. Haren nortasuna adierazten dute printzipio horiek, eta SAREEN SAREAK haren misioa garatzeko egiten duen ekarpen bereizgarriaren etengabeko nukleoa osatzen dute.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

BERDINTASUNA ETA DUINTASUNA (pertsonek erdigunean kokatzea)

Berdintasunak berekin dakar hau eraginkortasunez aitortzea eta errespetatzea: gizaki oro balioetsua da bere kabuz, ez da manipulagarria, bere kabuz jarduteko gai da; eta horri esker, bere gaitasunak behar bezala garatzeko eskubidea du.

Pertsonek guztien duintasuna da berdintasunaren oinarria, eta pertsonek bakoitza berdintzat aitortzea ezinbestekoa da duintasun hori erreala izan dadin. Duintasunak pertsonek errespetatzeko zeregina nahiz pertsonek eskubide-subjektutzat eta desberdintasunen eta berariazotasunen subjektutzat aitortzea nabarmentzen du.

GIZARTE JUSTIZIA ETA INKLUSIOA (esku-bideak eta eraginkortasunez baliatzen direla bermatzea)

Gizarte-justizia, araudian oinarritako esku-bideen bermetzat hartuta, eta pertsonek guztiei beren esku-bideak eta zereginak baliatzea ahalbidetzen duten baldintza guztiztat (diru-sarreraren bermea, babes-sistemak, diskriminazio-neurriak edo ekintza positiboa...) hartuta. Eta honakoa izango litzateke emaitza: inklusioa; bizi-baldintza duinak izatea; eta haien bizi-proiektuak garatzeko eta gizarteari ekarpenak egiteko aukerak izatea, ahal bezain autonomia handienarekin eta ingurune arruntetan, edo ahal bezain ingurune normalizatuenetan.

ELKARTASUNA (besteen beharrekin lotutako eta haiekin hartu-emanen eraikitzea)

Elkartasunak berekin dakar beste pertsonaren (antolakuntza, erakundea...) lekuan jartzea eta, lehenik eta behin, enpatia eskatzen du: besteen beharrak, arazoak, nahiak edo ahalak neureganatzea. Beraz, ariketa aktibo bat da eta bi alderdiren proiektuen, nahien, beharren, gaitasunen, mugen... arteko topaketaren emaitza da.

Bestalde, elkartasuna lotuta dago pertsonaren dimentsio sozialarekin, gizakiaren sozibilitatearekin eta elkarrenganako mendekotasunarekin. Pertsonak lagunkoia gara, besteen beharra dugu bizitzako zenbait unetan, bizikidetzako kolektiboko esparruak eraikitzen ditugu, eta neurri handiagoan edo txikiagoan, gure bizi-proiektuak partekatzen ditugu, garena eta duguna, eta beste pertsonek batzuekin hartu-emanen eraikitzen dugu geure burua.

PARTAIDETZA (herritarren aktiboa eta antolatua sustatzea)

Partaidetza (testuingurua neurri batean modelatzeko eta balioa eta aberastasuna emateko ekintza-elkarreragite gisa ulertuta) eta esku-hartze sozialeko partaidetza (herritarren ekintza antolatu eta solidario gisa ulertuta, gizarte-premiak artatzera bideratua, baina baita diskriminazio-, desgaitasuna-, mendekotasuna- eta bazterketa-, babesgabetasuna- edo arrisku-egoerak sortzeko faktoreak eraldatzera ere) bideratzea hirugarren sektore sozialaren antolakuntzen eta sareen oinarritako xedeetako bat da, eta aldi berean, aukera-baldintza nagusienetako bat. Horregatik, haientzat funtsezkoa da eragin sozialeko eta politikoko funtzioak garatzea, eta ekintza eraldatzaileari eta beste sektoreekiko eta eragileekiko autonomiari eustea.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

KONPROMISOA INGURUNEAREKIN (tokiko eta munduko loturak sustatzea)

Sektoreko antolakuntzek eta sareek lotura egonkorra dugu komunitate batekin, lurralde batekin eta kolektibo batekin (ez gara deslokalizatzen). Pertsonetikiko etengabeko konpromisoari zor zaio lotura hori. Beharrezko gizarte-aldaketak sustatzera bideratuta dago konpromiso hori, beste batzuekin lankidetzan, egoera hobetzeko eta haien bizikaltatea sustatzeko. Gizarte-kapitala hirugarren sektore sozialeko erakundeen eta sareen funtsezko baliabidea da, eta erabiltzen den aldiro ugartu egiten da. Gizarte-ehuna sendotu egiten da nahaspilatzen denean.

IZAERA

Erreferentzia komun bilakatu nahi du SAREEN SAREAREN Esparru Etikoak. Oinarriko zoru etikoa definitzen du, jarduketak haren bidez bideratzeko eta sustatu nahi duen interrelazio-estiloa zehazteko. Horizonte etiko bat eskaintzen du, etika eta gobernu ona presente egon daitezen erakundearen kudeaketan, kide diren erakundeen arteko harremanean, beste erakunde batzuekiko harremanean, gizarte zibileko eragileekiko harremanean eta Administrazioarekiko harremanean.

Halaber, Esparru Etiko hau Hirugarren Sektore Sozialeko profesionalek haien jarduketan eta ondorioen gainean hausnartu eta erabaki ahal izateko tresna bat bilakatzea espero du SAREEN SAREAK, gure esku hartzeko, antolatzeko eta erlazionatzeko modua hobetzea sustatuko duen tresna.

SAREEN SAREA Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoan jasota eta zehaztuta daude Esparru Etiko honen konpromisoak eta betebeharrak. Estatutuekin eta Barne Araudiarekin batera, hiru dokumentu horiek osatzen dute SAREEN SAREA osatzen duten pertsona eta erakunde guztien jarduteko eta erlazionatzeko arau esparrua.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

KONPROMISOEN DEKALOGOA

HONAKO KONPROMISOAK HARTZEN DITUGU:

- Esparru etiko hau erreferentziatzen hartzea eremu guztietan, hala nola gobernu-organoeetan, kanpo-harremanetan, lan-harremanetan eta hornitzaile sozialak kontratatzeke orduan.
- Beti profesionaltasunez eta independentziaz jokatzeta, gure Misioa garatzeko orduan ahalik eta efizientzia eta efikazia handiena lortzeko.
- Erabakiak hartzeko orduan SAREEN SAREko kideen arteko parte-hartzea, elkarriketa eta adostasuna sustatzea.
- Lurraldeko gizarte-eragileen artean sareak eta lankidetzarako aliantzak sortzeko eta indartzeko prozesua lideratzea.
- SAREEN SAREko kide diren erakundeen artean konfiantza, senidetasun eta elkartasun giroa sortzea.
- Kide diren sareen protagonismoa lehenestea, horien esperientzia eta gaitasun partikularrak aintzat hartuta eta, batez ere, sareek egin ezin dituzten jarduketak garatuz.
- Erakundeen parte-hartzea erraztea eta helburuak lortzen laguntzen duten eta inpaktu handiagoa lortzea ahalbidetzen duten baterako ekintzak sustatzea.
- Erakundearen helburuen, jarduketaren, emaitzen, antolaketaren eta kontuen gaineko informazioa ematea eta informazio horren eskuragarritasuna erraztea.
- SAREEN SAREko gobernu-organoeetan, egituretan eta jarduketetan gastu arduratsua bermatzea, aurrekontuaren oreka arriskuan jarri gabe, eta baliabideen dibertsifikazioa sustatzea.
- Kide diren pertsonen eta erakundeen aniztasuna onartzea; askotariko sinesmenak, ideologiak eta orientazioak daudela eta hori zilegi dela onartzea; eta aniztasun horren aldeko tolerantzia eta inklusioa bultzatzen duten jarrerak sustatzea.